BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1162

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 12koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, zeinen bidez onartzen baita Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategi Eskalako teknikarien, Informatika-aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikarien, Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikarien eta Eraikuntza-proiektuen garapen eta aplikazioko goi-mailako teknikarien lan-poltsak (2008ko lan-eskaintzari dagozkionak) eratzea eta langileak lan-poltsa horietan sartzea.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartzen ditu, eta Justizia eta Herri administrazioko 2011ko irailaren 13ko Aginduek Laguntzaile Teknikoen Kidegokoen oinarri espezifikoak onartzen dituzte:

- Laborategi Eskala.
- Aukera: Informatika-aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria.
- Aukera: Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria.
- Aukera: Eraikuntza-proiektuen garapen eta aplikazioko goi-mailako teknikaria.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak 2010eko apirilaren 16an emandako Aginduaren 12. artikuluan xedatzen denez, «hautaketa-prozedura bakoitza bukatutakoan, deitutako kidego eta eskaletako lan-poltsak berrantolatuko dira, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren Funtzio Publikoko sailburuordeak ematen duen ebazpenean ezarritakoari jarraituz. Ebazpen hori eman arte, gaur egun dauden lan-poltsen hurrenkerek indarrean jarraituko dute».

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko langileak hautatzeari buruzkoak, 4.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, enplegu publikoaren eskaintzak izango dira lan-poltsa horiek sortzeko eta langileak lan-poltsa horietan sartzeko lehentasunezko bitartekoak (2006ko ekainaren 13ko EHAA, 111. zenbakia). Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpen bidez sartuko dira langileak lan-poltsatan.

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta eginkizunak ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 20. artikuluak esleitutako eskumenari jarraikiz, eta langileen ordezkariekin negoziazio-izapidea egin ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honen eranskinaren lehenengo oinarrian adierazitako lan-poltsak eratzea, dagozkien hautaketa-prozesuak amaitu ondoren.

2. artikulua.– Langileak lan-poltsa horietan sartzea, ebazpen honen eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

AZKEN XEDAPENA.– BAKARRA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena eranskinean agertzen den moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 12a.

Funtzio Publikoko sailburuordea,
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA.

ERANSKINA

Lehenengo oinarria.– Poltsak osatzea.

Dagozkion hautaketa-prozesuak amaitu ondoren, Laguntzaile Teknikoen kidego hauetako lan-poltsak osatuko dira:

a) Laborategi Eskala.

b) Aukera: Informatika-aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria.

c) Aukera: Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria.

d) Aukera: Eraikuntza-proiektuen garapen eta aplikazioko goi-mailako teknikaria.

Bigarren oinarria.– Lan-poltsak osatuko dituzten langile-taldeak.

Lehen zehaztutako lan-poltsak eskakizun hauetakoren bat betetzen duten langileekin osatuko dira:

1.– Hautaketa-prozesua gainditu baina 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesuan hautatu ez direnak.

2.– 2008ko EPEko lehenengo edo bigarren azterketa gainditu dutenak.

3.– Aurreko paragrafoetako kasuen barruan izan gabe, 2013ko otsailaren 8ra arte azken bost urteotan gutxienez 12 hilabetez aldi baterako zerbitzuak eman dituztenak, atal honetan adierazitako eran, edo 2013ko azaroaren 8an zerbitzua ematen ari direnak.

3.1.– Kasuan kasuko kidegoko edo eskalako bitarteko funtzionario izendatuta egin bada, edo lan-kontratuaren bidez, poltsari dagokion lan-kategorian edo funtzionarioen kidego eta eskalaren parekoan.

3.2.– Lan-baldintzak funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan edo lan-kontratuko kolektiboen hitzarmenean ezarritakoak badira, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupean diharduten langileenak biak.

3.3.– Bitarteko funtzionarioaren kontratuari edo izendapenari uko egin ez badiote eta dagokion lan-poltsan behin betiko baja eman ez bazaie.

Hirugarren oinarria.– Lan-poltsak osatzen dituzten langileen hurrenkera.

Deialdi honen babesean sortzen den lan-poltsa bakoitzeko langileak honako baremo hau aplikatuz ateratzen den puntuazioaren araberako hurrenkeran egongo dira:

1.– 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesua gaindituz sartzen diren langileei dagokienez, oposizio-fasean eta merezimendu-fasean lortutako puntuak batuz lortutako kalifikazioaren bidez baloratuko dira; 100 puntu lortu ahal izango dituzte gehienez.

2.– 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesuaren oposizio-aldiko lehendabiziko edo bigarren ariketa gainditu izateagatik sartzen direnak.

Talde honetan sartzen dira, era berean, bi azterketak gainditu baina hautaketa-prozesua gainditu ez dutenak.

– Gainditutako proban lortutako kalifikazioarengatik: gehienez ere, 25 puntu. Bi azterketak gainditu dituztenei dagokienez, atal honetan kalifikaziorik onena lortu duten azterketako puntuazioarekin sartuko dira poltsan.

– Emandako zerbitzuengatik: 0,0027 puntu eguneko, eta gehienez ere 10 puntu.

3.– Bigarren oinarriko baldintzen arabera zerbitzuak eskaintzeagatik sartzen diren langileak: 0,0027 puntu eguneko, eta gehienez ere 10 puntu.

Laugarren oinarria.– Puntuazioak kalkulatzeko irizpideak.

1.– 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesuetan lortutako kalifikazioa da oposizio-fasean lortutako puntuazioen batuketa eta hautaketa-prozesuko merezimenduen balorazioa, gainditutakoen behin betiko zerrendan agertzen dena.

2.– Lehenengo azterketan gehienez 27 puntu lor daitezkeen arren edo bigarrenean 42 puntu lor daitezkeen arren, kasu honetan 25 puntu emango dira gehienez.

3.– Eskainitako zerbitzuak baloratuko dira, baldin eta 2.3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen badira, eta 2013ko otsailaren 8ra arte lan egindako aldien batuketa eginez kontatuko dira.

Ondorio horietarako, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak ofizioz baloratuko ditu Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak.

Bosgarren oinarria.– Berdinketa hausteko irizpideak.

Berdinketa kasuetan, honako irizpide hauek erabiliko dira berdinketa hausteko:

a) Emakumeei lehentasuna emango zaie, emakumeen kopurua % 40 baino txikiagoa baita. Nolanahi ere, irizpide hori ez da aplikatuko, beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

b) 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesuko oposizio-fasean puntuazio handiagoa izatea, edo oposizio-faseko lehenengo edo bigarren ariketan lortutako kalifikazioan.

c) Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 1. artikuluan ezarritako baldintzen arabera, kidegoan zerbitzuak eskaintzen denbora gehiago egon izana.

d) Dagokion kidego edo kategorian, EAEko Administrazio Orokorrarekiko eta haren administrazio instituzionalarekiko lehenengo enplegu-harremanaren data, adierazitako irizpideekin bat etorriz; lehentasuna izango dute data zaharragoek berriagoen gainetik.

e) EAEko Administrazio Orokorrean eta haren administrazio instituzionalean zerbitzuak eskaintzen denbora gehiago egon izana.

f) EAEko Administrazio Orokorrarekiko eta haren administrazio instituzionalarekiko enplegu-harremanaren data; lehentasuna izango dute data zaharragoek berriagoen gainetik.

g) Hizkuntza-eskakizuna: lehentasuna izango dute hizkuntza-eskakizun handiago dutenek, txikiagoa dutenen gainetik.

h) Lehenengo edo bigarren ariketan zuzen erantzundakoen kopuru handiagoa izatea.

i) Lehenengo edo bigarren ariketan oker erantzundakoen kopuru gutxiagoa izatea.

j) Lehenengo edo bigarren ariketan egin gabeko erantzunen kopuru gutxiagoa izatea.

Berdinketak jarraitzen badu, abizenen eta izenen araberako hurrenkera alfabetikoa izango da berdinketa-kasuak desegiteko azken irizpidea «Ñ» letratik hasita, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2012ko martxoaren 23ko Ebazpenaren arabera. Ebazpen honen bidez, argitara ematen da zer emaitza atera den 2012-2013 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuetarako.

Seigarren oinarria.– Informazioa eta kontsultak.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bai eta ondoren aipatzen diren egoitzetan eta helbideetan, zeinek prozesuaren iragarki-oholtzat hartuko dira, eta bertan ere argitaratuko dira lan-poltsak osatzen dituztenen behin betiko zerrendak.

Vitoria-Gasteiz:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP); Donostia kalea, 1 (Lakua) 01010. (Desgaitasuna dutenentzako sarbidea egokituta).

– Eusko Jaurlaritza; Samaniego kalea, 2. 01008 (desgaitasuna dutenentzako sarbidea egokituta).

Bilbao:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP); Errekalde zumarkalea, 18. 48009.

– Eusko Jaurlaritza; Kale Nagusia, 85. 48011 (desgaitasuna dutenentzako sarbidea egokituta).

Donostia:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): San Bartolome kalea, 28, 20007.

– Eusko Jaurlaritza; Andia kalea, 13. 20004 (desgaitasuna dutenentzako sarbidea egokituta).

Oñati:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): Unibertsitate zaharra z/g. 20560.

Helbide elektronikoak:

– www.ivap.org/bolsastrabajo

– www.euskadi.net/bolsastrabajo

Zazpigarren oinarria.– Lan-poltsak osatzen dituztenen zerrendak.

1.– Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak ofizioz sartu, barematu eta ordenatuko ditu lan-poltsa bakoitza osatzen dutenak, 2. eta 3. oinarrietan jasotako irizpideen arabera. Era berean, ebazpen hau argitaratu eta hamargarren oinarrian aipatzen den epean, lan-poltsa bakoitza osatzen duten pertsonen zerrendak argitaratuko ditu.

2.– Lan-poltsa bakoitzari dagokionez, honako hauek jasoko dira:

– Lan-poltsa osatzen duten guztien izen-abizenak.

– Pertsona bakoitzaren hurrenkera-zenbakia.

– Baremoa aplikatuta lortu duen puntuazioa.

– Hizkuntza-eskakizuna, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egiaztatua edo homologatua, eta ingeleseko eta frantseseko ezagutza-maila, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesuetan egiaztatutakoa edo Administrazio honen langileen erregistroan jasota dagoena.

– 2006ko maiatzaren 30eko Erabakia dela bide eratu diren lan-poltsetako kideei Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aitortu dien egoera dagokion lan-poltsan, ebazpen hau argitaratzeko egunaren bezperan. 2013ko martxoaren 1etik aurrera gertatzen diren behin betiko bajek lan-poltsa berrian behin betiko baja ekarriko dute. Lan-poltsan sartzen diren langile berriek erabateko prestasuna dutela ulertuko da eta iraupen luze zein laburreko eskaintzak jasoko dituzte.

– 2006ko maiatzaren 30eko Erabakia dela bide eratu diren lan-poltsetako kideei Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aitortu dien prestasuna eta eremu-mugapena, argitaratzeko egunaren bezperan. Lan-poltsetan sartzen diren langile berriei ez zaie muga geografikorik aitortuko, eta lurralde osorako eskaintzak hartuko dituzte.

Zortzigarren oinarria.– Lan-poltsetako kide berriak.

1.– Lan-poltsan sartzen diren langile berriak erabateko prestasuna dutela ulertuko da eta iraupen luze zein laburreko eskaintzak jasoko dituzte. Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 6. artikuluarekin bat etorriz (lan-poltsak arautzekoa), langile horiek, lan-poltsan sartzean edo geroago, prestasun partziala izatea aukeratu ahal izango dute.

2.– Era berean, lan-poltsetan sartutako kide berriek lanerako duten prestasunari mugak jarri ahal izango dizkiote, 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren eranskinean (2006ko ekainaren 13ko EHAA) jasotako gune jakin batean edo gune jakin batzuetan bakarrik hartzeko eskaintzak.

Bederatzigarren oinarria.– Datu pertsonalen fitxategia.

1.– Lan-poltsak osatzen dituzten pertsonei buruzko informazioa fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi hori bitarteko funtzionarioak aldi baterako kontratatzeko eta izendatzeko sortutako lan-poltsak kudeatzeko bakarrik erabiliko da. Lan-poltsa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi bateko zerbitzuak egiteko langileak hautatzeari buruz indarrean dauden erabakiek arautzen dituzte. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean, Datu Pertsonalak Babesteko eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoan, esaten dena beteko dute fitxategi horiek erabiltzeko orduan.

2.– Fitxategiaren arduraduna Funtzio Publikoaren Zuzendaritza da eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko Funtzio Publikoaren zuzendariarengana jo beharko da: Donostia kalea,1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

Hamargarren oinarria.– Indarrean jartzea.

1.– Lan-poltsetan dauden langileen zerrenda ebazpen hau argitaratu eta gehienezko 10 egun baliodun epean argitaratuko da, iragarki-oholetan eta ebazpenean adierazitako helbide elektronikoetan. Argitaratzeari uko egiteak lan-poltsetatik kanpo geratzea dakar.

2.– Lan-poltsak osatzen dituztenen behin betiko zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, lan-poltsan dauden langileen artetik hautatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan kidego, eskala, lan-kategoria eta lanpostu jakinetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak, 2006ko maiatzaren 30eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakian ezarritako irizpideen arabera.